

2/1997 Foru Dekretu Arauemailea, irailaren 16koa, Bizkaiko Lurralde Historikoa, Aseguru Primen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Urriaren 3koa)

Abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak Kupoaren Batzorde Mistoak 1997ko maiatzaren 27an erabaki zuen Ekonomi Itunaren aldaketa onetsi du.

Kupoaren Batzorde Mistoaren erabaki hori gure lurralde historikoko Batzar Nagusiek ekainaren 17ko 5/1997 Foru Arauaren bidez berretsi egin zuten eta goian aipatu 36/1997 Legearen bidez aldarrikatua izan zen. Erabaki horren edukiak 1981az geroko zenbait zergaren ituntzea aldarazteaz gain gure zerga sisteman orain arte ez zegoen beste hainbat zergaren ituntzea erakarri zuen.

Ituntze berri horren ondorioz sortutako zergetariko bat Aseguru Primen gaineko Zerga da, indarreko Ekonomi Ituneko 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Estatuak berak ezarritako eduki eta erazko arauak ezarri ordainarazi behar dena. Hori guztiori dela eta, xedapen hau ematea beharrezkoa da, zerga figura berri horren araupeketan gure antolamenduaren barruan sartu eta araupeketan Ekonomi Itunean finkatuta dauden lotuneak jasotzeko.

Hori dela eta, Oinarriei buruzko azaroaren 29ko 6/1995 Foru Arauan bildutako baimena dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposamena egin eta Foru Aldundiak 1997ko irailaren 16ko bileran eztabaidatu eta onetsi ostean, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua. Izaera.

Aseguru Primen gaineko Zerga zeharkako zerga motakoa da, aseguru eta kapitalizazio eragiketarako foru dekretu arauemaile honetako xedapenen arabera zergapetuko dituen.

2. artikulua. Zerga egitatea.

1. Legeko 3. artikuluan aipatu jardulari tekniketan oinarritutako aseguru eta kapitalizazio eragiketen burutzapena zerga honen zergapekoa izango da, zerga administrazio eta gizarte mailako neurriei buruzko abenduaren 30eko 13/1998 Legeko 12. artikuluko 6. atalean xedatutakoaren arabera, zerga honen ezarpen eremuaren barruan egin izan direnean eta Espainian diharduten aseguru entitateek, zerbitzugintza askeko araubidekoak izanik ere, itundutakoak direnean.
2. Aseguru entitateek Gizarte Segurantzaren Administrazioaren organismoekin edo, haiei buruzko legeria zehatzean xedatutakoaren arabera, Gizarte Segurantzaren Araubide Bereziatariko batzuk kudeatzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko entitateekin egindako itunen ondoriozko eragiketarako ez dira zerga honen zergapekoak.

3. artikulua. Ezarri behar den arautegia.

1. Ekonomi Ituneko 32. artikuluan xedatutakoaren barruan, zerga hau foru dekretu arauemaile honetan eta bera garatuko duten xedapenetan ezarritakoaren arabera eskatuko da.
2. Zerga ezartzerakoan kontutan hartuko da espainiar barru antolamenduaren osagai izatera etorri izan diren nazioarteko itunen eta hitzarmenetan xedatutakoa.

4 artikulua. Ezarpen eremua.

Zerga honen ezarpen eremua espainiar lurraldea da, aldameneko irlak, itsas lurraldea urtarrilaren 4ko 10/1977 Legeko 3. artikuluan zehaztutako itsas lurraldearen gaineko hamabi itsas miliako mugaraino, eta eremu horri dagokion aire espazioa barne.

5. artikulua. Zergaren ordainarazpena, ohiko egoitza eta zerga-egoitza.

Bat. Aseguru eta kapitalizazio eragiketetan, arrisku edo konpromisoa Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan kokatu behar denean, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuko du Aseguru Primen gaineko Zerga.

Bi. Ondore horietarako, hurrengo erregeletako egoeratariko bat gertatzen denean joko da arriskua Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan kokatutakotzat:

- 1.a.** Asegurua higiezinei dagokienean, ondasun horiek lurralde honetan finkatuta daudenean. Asegurua ondasun higiezinei eta berauen edukari dagokienean, edukia aseguru poliza berberak estaltzen badu, erregela bera erabiliko da.

Asegurua higiezin baten barruan dauden ondasun higikorrei soilik badagokie, merkataritza bideetan dabiltzanak alde batera utzita, ondasunak biltzen dituen ondasun higiezina lurralde horren barruan denean.

Bizkaian edo beste lurralde batean, erkidean edo foru lurraldean, kokatutako higiezinaren arriskua aseguru berak estaltzen duenean, haietako bakoitzean kokatuko da lurralde batean eta bestean dauden higiezinaren balioaren arabera.

- 2.a.** Asegurua edozein izaerako ibilgailuei dagokienean, zerga-egoitza edo ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duen pertsona edo erakunde baten izenean matrikulatuta dagoenean.
- 3.a.** Asegurua aseguru hartzailearen ohiko egoitza kanpo edo hura bidaiatzen ari den bitartean gertatutako arriskuei dagokienean, eta lau hilabetekoa edo laburragoa denean, aseguru hartzaileak kontratua Bizkaiko Lurralde Historikoan sinatu baldin badu.
- 4.a.** Aurreko erregeletan zehaztu ez diren gainerako kasu guztietan, aseguru hartzaileak, pertsona fisikoa bada, ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duenean, edo sozietatearen egoitza edo kontratuan aipatzen den sukur tsala lurralde horretan dagoenean.

Hiru. Bizitza aseguruak direnean, aseguru hartzailearen, pertsona fisikoa bada, ohizko egoitza, edo, pertsona juridikoa bada, sozietatearen egoitza edo kontratuan aipatzen den sukurtsala lurralde horretan dagoenean joko da konpromisoa lurralde honetan kokatutzat.

Lau. Aurreko ataletan zehaztu ez diren gainerako kasu guztietan, eragiketa horiek lurralde honetan egindakotzat joko dira aseguru eta kapitalizazio eragiketen kontratatzailea bere enpresa edo lanbide jardueren burutzapenean itundutako enpresari edo profesionala denean, eta beronen ekonomi jardueraren egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan egon edo bertan establezimendu iraunkorra edo, horrelakorik ezean, egoitza duenean

Ondore horietarako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araudi erregulatzailearen arabera enpresari edo profesionalak direnak joko dira holakotzat.

Bost.

- 1.** Pertsona fisikoek ohiko egoitza Bizkaian dutela ulertzeko, hurrenez hurren ondoko arau hauek aplikatuko dira:

- 1.a. Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Zergaldiko egun gehienak Euskal Herrian emanik, Bizkaiko lurralde historikoan Euskal Herriko beste bi lurralde historikoetako bakoitzean baino egun gehiago eman duenean.

Egonaldia zenbatekoa den konputatzeko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

Bestelakorik frogatzen ez bada, pertsona fisikoa Bizkaian bizi dela joko da pertsona horren ohiko etxebizitza lurralde honetan dagoenean.

- 2.a. Interesen gune nagusia Bizkaian duenean. Hala gertatzen dela ulertuko da baldin eta pertsona fisiko batek, Pertsona Fisikoen gaineko Zerga honen zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian eskuraturik, Bizkaian lortzen badu beste bi lurralde historikoetan lortutako zerga-oinarriaren zatirik handiena. Bi ondorio horietarako, higikorren kapitaletik eratorritako ondare errentak eta irabaziak ez dira aintzat hartzen, ezta zerga gardentasuneko araubidean egotzitako oinarriak ere, profesionala izan ezik.

- 3.a. Pertsona fisikoek Bizkaia izan behar dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondoretarako aitortutako beren azken egoitzaren lurraldea.

Bigarren araua aplikatuko da baldin eta, lehenengoan xedatutakoari jarraiki ezinezkoa gertatu bada zergadunaren ohiko egoitza ezein lurraldetan -komun edo foraleanzehaztea. Hirugarren araua inguruabar bera gertatzen denean aplikatuko da, lehenengo eta bigarren arauetan ezarri dena aplikatu ondoren.

2. Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egun baino gehiago igarotzen ez dituztenak, Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

Aurreko lerroaldean jasotakoaren arabera pertsona fisikoen ohiko egoitza Euskal Herrian dagoenean, pertsona fisiko horiek Bizkaiko biztanletzat joko dira beren enpresa edo lanbide jardueraren edo interes ekonomikoen gune nagusia lurralde horretan kokatzen bada.

3. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren mendeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izateagatik, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke..
4. Pertsona juridikoen zerga-egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da, baldin eta sozietate-egoitza lurralde horretan badago eta administrazio-kudeaketa osoa eta negozioen zuzendaritza lurralde horretan zentralizaturik badaude. Osterantzean, zerga-egoitza kudeaketa edo zuzendaritza hori egiten den lekua izango da. Aurreko irizpideen arabera zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, pertsona juridikoek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta ibilgetuaren baliorik handiagoa Bizkaian badu, beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino..
5. Elkarte zibil eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, haien kudeaketa eta zuzendaritza lurralde horretan egiten bada. Lehen aipatutako irizpidea (zuzendaritza eta kudeaketa) aplikatuz elkarte zibilen eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu..
6. Establezimendu iraunkorren zerga-egoitza izango da euren administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza burutzen direneko lurraldea.

Zerga-egoitza zehazterik ez dagoenean, aurreko irizpidearen arabera, establezimendu iraunkorrek zerga-egoitza Bizkaian dutela ulertuko da, ibilgetuaren baliorik handiena Euskal Herrian izanda, baldin eta Bizkaian beste bi lurralde historikoetariko edozeinetan baino ibilgetuaren baliorik handiagoa badu.

6. artikulua. Salbuespenak.

1. Hurrengo eragiketok Aseguru Primen gaineko Zergatik salbuetsita daude:
 - a) Nahitaezko aseguru sozialei eta pentsio plan eta fondoekiko sistema alternatiboak bideratzen dituzten aseguru kolektiboei buruzko eragiketak.
 - b) Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeko III. Tituluko bigarren atalean aipatu bizitza aseguruei buruzko eragiketak.
 - c) Jardulari tekniketan oinarritutako kapitalizazio eragiketak.
 - d) Aseguru Kontratuari buruzko urriaren 8ko 50/1980 Legeko 77. artikuluan zehaztutako berraseguru eragiketak.
 - e) Gaude edo kauzio aseguruetako eragiketak.
 - f) Esportaziorako kreditu aseguru eta nekazaritzako aseguru konbinatuko eragiketak.
 - g) Merkataritzako gaien edo bidaiarien nazioarteko garraiketarekin zerikusia duten aseguru eragiketak.
 - h) Nazioarteko garraiorako diren itsasontzi eta aireontziekin, jolaseko nabigazio edo abiazio pribatuak egiten dituztenak alde batera utzita, zerikusia duten aseguru eragiketak.
 - i) Osasun laguntza eta gaixotasun aseguru eragiketak.
 - j) Bermaturiko aurreikuspen planen inguruko eragiketak.
2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arategian zehaztutakoa joko a nazioarteko garraiketatzat. Hala ere, espainiar penintsulako lurraldearen eta Balear irlen eta Kanariar irlen, Zeutaren edo Melillaren artean egindako garraiaketa ez da nazioartekotzat joko.

Zerga Bereziei buruzko arategian zehaztutakoak joko dira jolaseko nabigazio eta abiazio pribatutzat.

7. artikulua. Zergaren sortzapena.

Zerga hau zergapeko eragiketei dagozkien primak ordaintzean sortuko da. Primak zatika ordainduz gero, zatikako ordainketa bakoitza egiten denean sortuko da zerga hau.

8. artikulua. Zerga oinarria.

1. Hartzaileak edo gainontzeko batek ordaindutako prima edo kuotaren guztizko zenbatekoa izango da zerga honen zerga oinarria.
2. Ondore horietarako, zerga honi lotutako eragiketen kontraprestazio gisa ordaindutako kopuruaren guztizko zenbatekoa joko da prima edo kuotatzat, kopuru horiek eragin dituen zergatia edo jatorria eta kobratzeko tokia eta era edozelakoak izanda ere, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren eta Aseguru Entitateen Batzorde Likidatzailearen alde ezarritako errekaruak eta primari zuzen-zuzenean eragindako gainerako zergak alde batera utzita.

9. artikulua. Subjektu pasiboak.

1. Zerga honen subjektu pasiboak zergak kargatutako eragiketak egiten dituzten aseguru entitateak dira. Horretarako honako hauek joko dira aseguru entitatetzat:
 - a) Aseguru Pribatuen Antolamendu eta Gainbegiratzeari buruzko azaroaren 8ko 30/1995 Legeko 5. artikuluan aipatutakoak.
 - b) Espainia ez den europar ekonomi guneko kidea den beste Estatu batean egoitza duten aseguru entitateen sukurtsalak, Espainian establezimendu eskubideko araubidean dihardutenean.
 - c) Espainia ez den europar ekonomi guneko kidea den beste Estatu batean egoitza duten aseguru entitateak, Espainian zerbitzugintza askeko araubidean dihardutenean.
 - d) Europar ekonomi guneko kideak ez diren beste herrialde batzuetan egoitza duten aseguru entitateen Espainiako sukurtsalak.
2. ...
3. Espainian zerbitzugintza askeko araubidean jardun eta egoitza Espainia ez den europar ekonomi guneko kidea den beste Estatu batean duten aseguru entitateek egindako zergapeko eragiketetan, zerga honen jasanarazpena egiaztatzen ez dutenean, egoitza Espainian duten enpresario edo profesional kontratatzaileak izango dira zerga honekiko erantzule solidarioak.

Horretarako zerga honen ezarpen eremuaren barruan ekonomi jardueraren egoitza, establezimendu iraunkorra edo zerga egoitza duten enpresario edo profesionalak joko dira egoitza zerga honen ezarpen eremuaren barrukotzat, zergapeko eragiketak establezimendu horretatik egiten ez badituzte ere

10. artikulua. Zergaren jasanarazpena.

Zergapetu behar diren aseguruak kontratatzen dituzten pertsoneri jasanarazi behar izango diete oso-osoan aseguru entitateek Aseguru Primen gaineko Zerga.

Jasanarazpena Balio Erantsiaren gaineko Zerga araupetzen duen arautegian xedatutakoaren arabera egingo da.

11. artikulua. Zerga tasa.

1. 100eko 8ko karga-tasa aplikatuko da zergaren bidez.
2. Eragiketa bakoitzari ezarri behar zaion zerga tasa zerga sortzean indarrean dena izango da.

12. artikulua. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauari egokitua.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak zerga honen karga tasa edo tasak eta salbuespenak aldatu ahal izango ditu.

13. artikulua. Autolikidazioa eta sarrera.

1. Subjektu pasiboek hileru aurkeztu behar dute zerga horrengatiko aitortpena.

Aitortpenaren une berean, subjektu pasiboak beharrezko zerga-zorra zehaztu eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezartzen dituen tokian, eran, epeetan eta inprimakietan sartu beharko du.

2. Era berean, subjektu pasiboek zergaren aitorten bat (urteko laburpena) aurkeztu beharko dute, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezartzen dituen epeetan, beharkizunetan eta baldintzetan.

14. artikulua. Zerga-ordezkaria izendatu eta Zerga Administrazioari jakinaraztea.

...

XEDAPEN IRAGANKO BAKARRA

Hobaria errepidezko barne garraio publikoaren aseguru eragiketen aseguru primen gaineko zerga-zorreetan. 2001. urtean, Aseguru Primen gaineko Zergan %75eko hobaria izango dute merkatugaien edo bidaiarien errepidezko barne garraio publikoaren arrisku aseguru eragiketetan, baldin eta ondoko inguruabarrak gertatzen badira:

- a) Garraio ibilgailuetan doazenen istripu-arriskuak, garraio ibilgailuek jasandako kalteak edo garraiolariaren erantzukizun zibila estaltzea.
- b) Prima 2001. urtean ordaintzea eta epealdi horretako arriskuak estaltzea.

Aseguru erakundeek aseguruak kontratatzen dituztenei Aseguru gaineko Zerga jasanarazi nahi badiete eta haiek hobari hau aplikatzeko eskubidea badute, bereiz zainpetuko dituzte karga-tasa aplikatuz sortzen den kuota eta hobaria aplikatuz sortzen dena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen. Indarrean jartzea.

1. Aseguru Primen gaineko Zerga 1997ko urtarrilaren 1az gero kobratutako primen zioz eskatuko dira, baita ere data horren aurretik sortarazitako primetatik datozen zatikiei badagokie ere, berauei dagozkien arriskuak data hori baino lehen amaitu ez badira.
2. Aurreko 1. atalean xedatutakoa gorabehera, 1996ko mugaegun data duten primak edo prima zatikiak zerga honetatik salbuetsita daude, haien benetako ordainketa 1997ko urtarrilaren 1az gero gertatzen bada ere, salbu eta mugaegun data arrazoirik gabe aurreratu bada.
3. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, 1997ko irailaren 1az gero, Aseguru Primen gaineko Zergatik salbuesteko ahalmena, prima horiek noiz sortarazi ziren alde batera utzita.

Bigarrena. Baimena ematea.

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena emana zaie, foru dekretu hau garatu eta ezartzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzaten.

Hirugarrena. Berrespena.

Batzar Nagusiei foru dekretu arauemaile honen berri emango zaie, bidezkoa bada, baliozkotu dezaten.